ZIZURKILGO UDALA

# ZIZURKILGO "ATXULONDO" KULTUR ETXEKO TABERNA-JATETXEAREN USTIAKETA PROZEDURA IREKIZ KONTRATATZEKO BALDINTZA ADMINISTRATIBO BEREZIEN AGIRIA.

## 1. PROZEDURA ETA ESLEITZEKO ERA.

Kontratu honen esleipena ohiko prozedura irekiz egingo da. Esleitzeko hainbat irizpide erabiliko dira.

## 2. KONTRATUAREN XEDEA.

1.- Agiri honi jarraituz erabakiko den esleipenaren xedea hauxe da: "Atxulondo" kultur etxeko taberna-jatetxearen ustiaketa, baldintza administratibo berezien eta preskripzio teknikoen agiri honetan xedatutako baldintzen arabera eta espedientean jasotzen den dokumentazio teknikoarekin. Horrek guztia kontratu izaera izango du.

Emakidadunak taberna-jatetxearen eremua erabiliko du, Udalaren kultur etxeko behe solairuan kokatua. Agiri honen I. eranskinean jasota dago eremuaren planoa. Honako gune hauen erabilera esklusiboa izango du:

a) 134 m2-ko lokala, taberna-jatetxerako erabilia.

b) 48 m2-ko azalerako terraza, 30 m2-ko eta 18 m2-ko bi eremu bereizitan kokatua, tabernako sarreraren bi aldeetan, eraikinaren fatxada nagusiaren ondoan.

Eta kultur etxeko eraikinaren behe solairuan dauden komunen erabilera partekatua.

Udalak emakidadunaren esku jarriko du kontratuaren xedea. Gaur egun ez du beste ondasunik (altzariak, tresneriak, etab.), instalazioak soilik, eta, hortaz, ez da beharrezkoa inbentariorik egitea.

# PLIEGO DE CLAUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PARA LA CONTRATACION DE LA EXPLOTACION DEL BAR-RESTAURANTE DE LA CASA DE CULTURA "ATXULONDO" DE ZIZURKIL POR PROCEDIMIENTO ABIERTO.

## 1. PROCEDIMIENTO Y FORMA DE ADJUDICACIÓN.

La adjudicación del presente contrato se realizará por procedimiento abierto ordinario. Varios criterios de adjudicación.

## 2. OBJETO DEL CONTRATO.

1.- La adjudicación que en base al presente Pliego se acuerde, tendrá por objeto la explotación del Bar-Restaurante de la Casa de Cultura "Atxulondo", con arreglo a las prescripciones técnicas y condiciones establecidas en el presente Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y con la documentación técnica que figure en el expediente que tendrá carácter contractual.

El espacio a utilizar por el concesionario es el delimitado por el Bar-Restaurante situado en la planta baja de la Casa de Cultura municipal de acuerdo con el plano que se acompaña como Anexo I a este pliego, y comprende el uso exclusivo de:

a) 134 m2 del local destinado bar-restaurante.

b) 48 m2 de superficie de terraza distribuida en dos espacios diferenciados de 30 y 18 m2 a ambos lados del acceso al bar, junto a la fachada principal del edificio en que se ubica.

Y el uso compartido de los aseos existentes en la planta baja del edifico de la Casa de Cultura del que forma parte.

El Ayuntamiento pone a disposición del concesionario el objeto del contrato que en la actualidad no dispone de otros bienes (mobiliario, enseres, etc.) que las instalaciones existentes, haciéndose innecesario proceder a su inventariado.

2.-Taberna-jatetxe zerbitzuaren ustiaketa, preskripzio teknikoen agiriko 2.3. atalean adierazitako egokitzapen-lanetan inbertsioak egin ostean.

Kultur etxeko gainerako eremuak ez dira sartuko esleipen honen barruan.

**3. ALDAERAK EDO ALTERNATIBAK.**

Lizitatzaileek aukera izango dute Udalak proposatu duen irtenbide teknikoari hobekuntzak edota aldaketak aurkezteko, eta Udalak baloratu egingo ditu. Hobekuntza edo aldaketa horiek onartuak izanez gero, aldaketa horiek hartuko dira aintzakotzat espedientean hasieran ezarritako hautazko baldintzen ordez.

**4. EXEKUZIORAKO EPEA.**

1.- Zerbitzua emateko epea, guztira, HAMAR URTEKOA izango da, kontratua sinatzen denetik zenbatzen hasita. Epe hori luzatu ahal izango da, URTEZ URTE, beti ere aldeek horrela erabakitzen badute espresuki, kontratua amaitu baino lehen. Nolanahi ere kontratuak, guztira, luzapenak barne, ezin izango du HAMABOST urte baino gehiago iraun.

2.-Bertan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik alderdietakoren batek kontratua bertan behera uzteko eskatuko balu, eta Udalak erabakiko balu egokia dela kontratua bertan behera uztea, esleipendunak ustiatze-zerbitzua ematen jarraitu beharko du –udalbatzak horrela iritziz gero- zerbitzua berriro lizitatu arte,edo gehienez lau hilabetez, beti ere Udalak kontratua bertan behera uzteko erabakia hartzen duen egunetik zenbatzen hasita. Epe horretan aplikatuko diren prezioak kontratukoak izango dira.

3.-Kontratua amaitzean, ustiaketaren xede diren elementu guztiak itzuliko zaizkio Udalari.

4.-Esleipena emandako epea amaitzen denean iraungiko da, eta, ondorioz, esleipendunak lokala eta bertan dauden gauza guztiak Udalaren esku utzi beharko ditu. Halaber, Udalak berak ahalmena izango du bere kasa esleipendunak irtenaraztea erabakitzeko edo exekutatzeko.

2.- La explotación del servicio de Bar-Restaurante, una vez realizadas las inversiones en las obras de adecuación señaladas en el apartado 2.3. del Pliego de prescripciones técnicas.

El resto de espacios de la Casa de Cultura no entran en el ámbito de esta adjudicación.

**3. VARIANTES O ALTERNATIVAS.**

Se admitirá que los licitadores presenten mejoras y/o modificaciones a la solución técnica propuesta por el Ayuntamiento que serán valoradas por éste, y, caso de ser aceptadas, modificarán en aquello en que pudieran estar en contradicción, las condiciones facultativas inicialmente fijadas en el expediente.

**4. PLAZO DE EJECUCIÓN.**

1.- El plazo total de ejecución de la prestación será de DIEZ AÑOS, contados a partir de la firma del contrato, siendo susceptible de prorrogarse, siempre y cuando las partes lo acuerden expresamente, antes de la finalización de aquel, por períodos de UN AÑO, sin que la duración total del contrato, incluidas las prórrogas, pueda exceder de QUINCE años.

2.- Si cualquiera de las partes solicitara la resolución del contrato por incumplimiento delas obligaciones en él establecidas, y el Ayuntamiento adoptase acuerdo reconociendo su procedencia, el adjudicatario quedará obligado a seguir prestando el servicio de explotación, si así lo estimare conveniente la Corporación, hasta la adjudicación de la nueva licitación que oportunamente se convoque, o por un periodo máximo de cuatro meses, contados desde la fecha del acuerdo municipal de resolución del contrato. En el transcurso de este plazo los precios aplicables serán los mismos del contrato.

3.- Al término del contrato se producirá la reversión al Ayuntamiento de todos los elementos objeto de la explotación.

4.- La adjudicación se extinguirá al cumplirse el plazo por el que se otorga, quedando la parte adjudicataria obligada a abandonar y dejar libres a disposición del Ayuntamiento, el local y los demás bienes objeto de la misma, reconociendo la potestad municipal para acordar y ejecutar por sí el lanzamiento.

**5. KANONA – LIZITAZIO MOTA.**

1.- Lizitatzaileek hileroko ekarpen ekonomikoa eskainiko diote Udalari, kanon kontzeptuan, eta ekarpen hori inolaz ere ez da BERREHUN (200) EURO baino txikiagoa izango. Kopuru hori gorantz hobetu ahal izango dute lizitatzaileek beren eskaintzetan.

Kopuru horri dagokion BEZa erantsiko zaio.

2.- Kanona berraztertu egingo da kontratua indarrean dagoen bitartean, eta eguneratu egingo da urte natural bakoitzaren hasieran, eguneratze-dataren aurreko hamabi hilabeteetan KPI indizeak izaten duen aldaketa oinarri gisa hartuz.

3.- Esleipendunak, horren truke, zerbitzuaren ustiaketagatik lortutako diru-sarrerak jasoko ditu.

**6. FINANTZIAZIOA.**

Kontratu hau gauzatzeko Zizurkilgo Udalak ez du finantziaziorik emango.

**7. BERMEAK.**

**a) Behin-behineko bermea:**

Lizitazio honetan parte hartu ahal izateko ez da beharrezkoa izango behin-behineko bermerik jartzea.

**b) Behin betiko bermea:**

1.- Eskaintza abantailatsuena egiten duen lizitatzaileak bere gain hartutako betebeharrak beteko dituela bermatu ahal izateko, behin betiko bermea jarri beharko du. Behin betiko berme hori hasierako hamar urteetako esleipenaren zenbateko osoaren ehuneko hamarrekoa (% 10) izango da.

2.- Betebehar hori beteko ez balitz, kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratua bertan behera utziko du administrazioak.

3.- Berme hori jartzeko epea hamar lanegunekoa izango da, eskakizuna jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Bermea Zizurkilgo Udaleko altxortegi nagusian gordeko da. Bermea jartzeko bidea diruz edo Sektore Publikoko Kontratuen

**5. CANON – TIPO DE LICITACIÓN.**

1.- Los licitadores ofertarán al Ayuntamiento una aportación económica mensual en concepto de canon, que en ningún caso será inferior a DOSCIENTOS (200) EUROS. Esta cantidad podrá ser mejorada al alza por los licitadores en sus correspondientes ofertas.

A esta cantidad se le aplicará el I.V.A. correspondiente.

2.- El canon estará sujeto a revisión durante la vigencia del contrato y se actualizara, a comienzos de cada año natural, a la variación que sufra el I.P.C. de los doce meses anteriores a la fecha de la actualización.

3. El adjudicatario recibirá como contraprestación los ingresos que obtenga de la explotación del servicio.

**6. FINANCIACIÓN.**

La ejecución del presente contrato no exige financiación por parte del Ayuntamiento de Zizurkil.

**7. GARANTÍAS.**

**a) Garantía provisional:**

Para tomar parte en la presente licitación no será necesaria la constitución de garantía provisional.

**b) Garantía definitiva:**

1.- El licitador que presente la oferta más ventajosa, a fin de garantizar el cumplimiento de las obligaciones contraídas, está obligado a constituir una garantía definitiva por importe del diez por ciento (10 %) del importe total de adjudicación de los diez años iniciales.

2.- De no cumplirse este requisito por causas imputables al contratista, la administración declarará resuelto el contrato.

3.- El plazo para la constitución de la citada garantía será de diez días hábiles contados a partir del siguiente a aquel en que hubiera recibido el requerimiento, será depositada en la depositaría de este Ayuntamiento de Zizurkil y podrá

Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 96. artikuluan azaltzen direnetatik edozein izan daiteke (aurrerantzean SPKLTB).

4.- Bermea itzultzeari dagokionez, oso-osorik edo, hala balegokio, zati batean itzuliko da, SPKLTBaren 102. artikuluak zehaztutakoaren arabera, bermerako epea amaitu eta esleipendunak bere kontratu-betebehar guztiak bete eta gero, edo kontratua amaitzen bada, kontratistaren errurik gabe.

## 8. KONTRATUA GAUZATZEA.

1.- Kontratua kontratistaren gain eta bere kontura bete beharko da.

2.- Agiri honetan jasotzen diren klausulei eta espedienteari erantsitako espezifikazio teknikoei lotuta betearaziko da kontratua, eta hura interpretatzeko Udalak kontratistari ematen dizkion jarraibideen arabera.

3.- Taberna-jatetxearen jarduerak obra txikiko udal-lizentzia lortzen denetik HILABETEKO epean hasi beharko du, eta baldintzen agiri honetan zehazten den garai eta forman gauzatu beharko da.

4.- Kontratistak plegu hauetan zehaztutako kalitatearekin eta maiztasunarekin gauzatuko ditu lanak, bai eta kontratatu den zerbitzua eman ere, edozein dela erakunde esleipendunaren barne eta kanpoko egoera, adibidez, lan arazoak eta kontratuaren jarduera normalean eragina izan dezakeen beste edonolako egoera. Garbi, egoera onean eta behar bezala funtzionatzeko moduan mantendu beharko ditu kontratua betetzeko Udalak utzitako instalazioak, ekipoak, materiala eta agiriak.

Gainera, Udalari matxuren eta konponketa beharren inguruan abisua eman beharko dio, jakiten dituen unean bertan.

5.- Kontratistak kontratua bere kontura onartzen duela ulertuko da, SPKLTBaren 215. artikuluaren arabera. Dena den, esleipendunak ezin dio Administrazioari eskatu edaritegi-jatetxearen

constituirse en metálico, o bien en cualquiera de los medios establecidos en el artículo 96 del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público (en adelante TRLCSP).

4.- La devolución de la garantía, tanto total como parcial, en su caso, se realizará de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 102 del TRLCSP, una vez vencido el plazo de garantía y cumplidas por el adjudicatario todas sus obligaciones contractuales o resuelto el contrato sin culpa del contratista.

## 8. EJECUCIÓN DEL CONTRATO.

1.- La ejecución del contrato se realizará a riesgo y ventura del contratista.

2.- El contrato se ejecutará con sujeción a las cláusulas contenidas en el presente pliego y a las especificaciones técnicas unidas al expediente, de acuerdo con las instrucciones que para su interpretación diese al contratista el Ayuntamiento.

3.- La actividad del bar-restaurante deberá iniciarse en un plazo máximo de UN MES desde la obtención de la licencia municipal de obra menor, debiendo ejecutarse en tiempo y forma determinados en el presente pliego de cláusulas.

4.- El contratista deberá prestar el servicio con la continuidad y calidad prevista en estos pliegos, así como realizar el servicio contratado con independencia de las circunstancias internas o externas de la entidad adjudicataria, tales como conflictos laborales y cualquier otra que pueda afectar al desarrollo normal del contrato. Deberá conservar en perfecto estado de funcionamiento, limpieza e higiene y conservación las instalaciones, equipos, material y documentos varios que fueren cedidos por el Ayuntamiento para la realización del contrato.

Así mismo, deberá poner sobre aviso al Ayuntamiento en caso de averías o necesidad de reparaciones, en el mismo momento de que tenga su conocimiento.

5.- El contrato se entenderá aceptado por el contratista a su "riesgo y ventura", con arreglo al artículo 215 del TRLCSP, sin que pueda exigir de la Administración por ninguna circunstancia que

jardueraren kudeaketa ekonomikoan gerta litekeen defizit osoa edo horren zati bat bere gain har dezala.

6.- Zizurkilgo Udalak ez du inolaz ere ustiaketaren finantziazioan parte hartuko. Era berean, esleipendunari ez dio gutxieneko dirubiltze edo irabazirik ziurtatuko, ezta inolako dirulaguntzarik emango.

7.- Zizurkilgo Udalak ez du hornitzaileei ordaindu beharrekoa ez ordaintzearen ardura hartuko, eta ez ditu bere gain hartuko beste batzuek instalazioetan egin ditzaketen narriadurak edo lapurretak.

8.- Udala erabat aske geratuko da erantzukizun penaletik, zibiletik edo beste mota bateko erantzukizunetik, bai ez-ordaintze kasuetan, bai zerbitzatutako janariak sortutako intoxikazioetan, bai beste edozein arrazoirengatik sortutako arazoetan.

9.- Zerbitzua emateko beharrezkoak diren lizentzia edo baimen administratiboak lortzea beti esleipendunaren kontura joango da, eta bere izenean eskatu beharko ditu.

## 9. ESLEIPENDUNAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

1. Agiri honetan jasotakoaz eta aplikagarri diren araudi osagarriez gain, honako hauek dira bereziki kontratistaren betebeharrak:

   a) Kontratuan bertan zehaztutako denboran eta tokian gauzatzea kontratua, preskripzio teknikoen eta baldintza administratiboen arabera, eta haien interpretaziorako Administrazioak esleipendunari ematen dizkion jarraibideak kontuan hartuta. Era berean, ezin izango du kontratua, oso-osorik edo zati bat, beste pertsona baten esku utzi, Administrazioak aldez aurretik eta espresuki baimendu gabe.

   b) b.1) Esleipendunak zuzenean eman beharko du ustiaketa, berak dituen baliabide eta langileekin.
   b.2) Zerbitzua emateko esleipendunak bere kontura jartzen edo kontratatzen dituen langileek ez dute inolako harremanik edukiko Zizurkilgo Udalarekin. Aipatu

ésta asuma total o parcialmente el eventual déficit en la gestión económica de la actividad de bar-restaurante.

6.- El Ayuntamiento de Zizurkil no participará en la financiación de la explotación de forma alguna. Tampoco asegurará al adjudicatario una recaudación o rendimientos mínimos ni le otorgará subvenciones de ninguna clase.

7.- El Ayuntamiento de Zizurkil no se hace responsable de la falta de pago a los proveedores ni de los deterioros o robos que se puedan cometer por terceros en las instalaciones.

8.- El Ayuntamiento quedará totalmente exonerado de cualquier responsabilidad penal, civil o de cualquier otra índole, bien sea por impagos, por intoxicaciones producidas por el consumo de los productos suministrados o por cualquier otro tipo de motivos.

9.- La obtención de cuantas licencias o autorizaciones administrativas sean precisas para la prestación del servicio, correrá siempre a cargo del adjudicatario, quien deberá solicitarlas en su nombre.

## 9. DERECHOS Y OBLIGACIONES DEL CONTRATISTA

1. Además de las contenidas en este Pliego y de las que resulten de la aplicación de las normas supletorias son especiales obligaciones del contratista las siguientes:

   a) Ejecutar el contrato en el tiempo y lugar fijados en el contrato y de conformidad con las condiciones técnicas y cláusulas administrativas y de acuerdo con las instrucciones que para su interpretación diere al contratista la Administración, no pudiendo ceder, en todo o en parte, el contrato a otra persona sin autorización expresa de la Administración.

   b) b.1) El adjudicatario prestará la explotación directamente con los medios y personal de que disponga.
   b.2) El personal que, en su caso, por su cuenta aporte o contrate el adjudicatario para el servicio no adquirirá relación alguna con el

langileak esleipendunaren mende egongo dira soil-soilik eta esklusiboki; enpresa kontratistaren antolakuntza egituraren mende burutuko dituzte beti lanak; eta hark helaraziko dizkie beren lana modu egokian burutzeko beharrezkoak diren elementu materialak.

b.3) Esleipendunak nagusiaren eskubide eta betebehar guztiak izango ditu, eta lan arloan bereziki aplikagarri den Hitzarmenean xedatutakoak, Gizarte Segurantzan eta laneko segurtasun eta higiene arloan indarrean dauden xedapen guztiak bete beharko ditu. Udalak ez du inongo erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

b.4) Udalak kontratua amaitu aurretik edo amaitutakoan zerbitzua berreskuratzea erabakiko balu, Udala ez da arduratuko esleipendunak kontratatutako langileez, ezta kontratutik edo kontratua amaitzetik sortutako inolako ordainketa edo kalte-ordainen erantzule ere egingo.

c) Hileko kanona ordaintzea, hil horretako lehenengo hamar egunetan. Ezarritako kuotak ordaintzeko garaian, hogeita hamar egun baino gehiagoko atzerapena edukiz gero, bertan behera geratuko da kontratua automatikoki.

d) Hitzartutako maiztasunarekin ematea zerbitzua, eta erabiltzeko eskubidea bermatzea partikularrei, ezarritako baldintzen arabera.

e) Esleipendunak bere gain hartzen ditu betebehar hauek, ustiaketak irauten duen bitartean: ur, gas, argindar, e.a. hartuneak gauzatzeko dagozkion baimenak lortzekoa eta mantentzekoa, nahiz izaera fiskaleko eta komertzialeko Erregistro Publikoetan eta Gizarte Segurantzakoetan alta eman eta inskribatzekoa.

Ayuntamiento de Zizurkil. Dicho personal depende única y exclusivamente del adjudicatario y desarrollará sus funciones dependiendo siempre de la estructura organizativa de la empresa contratista, quien les dotará de los elementos materiales precisos para el correcto desempeño de su trabajo.

b.3) El contratista tendrá todos los derechos y obligaciones inherentes a su calidad de patrón y estará obligado al cumplimiento de las disposiciones legales vigentes en material laboral, especialmente las fijadas en el Convenio aplicable, de Seguridad Social y de seguridad e higiene en el trabajo, quedando el Ayuntamiento exonerado de responsabilidad por este incumplimiento.

b.4) En el caso de que el Ayuntamiento acordara el rescate del servicio, antes de o a la finalización del contrato, el Ayuntamiento no se hará cargo del personal contratado por el adjudicatario, ni se responsabilizará del abono de indemnización alguna que pudiera derivarse del contrato o de su finalización.

c) Abonar el canon mensual dentro del plazo de los primeros diez días del mes en curso. La demora en el pago de las cuotas establecidas en más de treinta días, será causa automática de resolución del contrato.

d) Prestar el servicio con la continuidad convenida y garantizar a los particulares el derecho a utilizarlo en las condiciones establecidas.

e) El adjudicatario se obliga a obtener y mantener, durante el período que dure la explotación, las autorizaciones y permisos correspondientes para la ejecución de las acometidas de agua, gas, electricidad, etc., y a darse de alta e inscribirse en los Registros Públicos de carácter fiscal, comercial y de Seguridad

Social.

f) Kontratistak bere gain hartzen du honako betebehar hau: kontratuaren jardun-eremua osatzen duten eraikina, instalazioak eta ekipamendua egoera onean zaintzekoa, garbiak eta higienikoki eta kontserbazio aldetik modu egokian. Era berean, bere kontura izango dira beharrezkoak diren konponketak eta mantentze-lanak, edozein dela ere bere kostua edo arrazoia.

Matxuraren arrazoia zerbitzuaren funtzionamendu normaletik apartekoa edo besteren bat balitz, konponketa Udalaren kontura izango da.

Gainera, bere ardura izango da eraikineko behe solairuko komunak egunero garbitzea, atseden-egunetan eta oporretan izan ezik, egun horietan udal-zerbitzuek garbituko baitituzte.

Udala jakinaren gainean jarri beharko du matxurez eta konponketa-beharrez, horretaz konturatu orduko. Horretarako, harremanetan jarri beharko du Udaleko zerbitzu teknikoekin, horretarako emango zaion telefono zenbakira deituz, edo besterik ezean, Udaltzaingora abisua pasaz.

g) Lan-arloko legeriari, Gizarte Segurantzari eta Hitzarmen Kolektiboei dagokienez indarrean dauden xedapen guztiak betetzea, baita Laneko Arriskuen Prebentzioko 31/1995 legeak eta hori garatzen duten Errege Dekretuek xedatzen dutena ere (bereziki langileentzako formazio-ekintzei eta norbera babesteko ekipoen horniketari dagokionez), baita zerga gaietakoek ere. Nolanahi ere, haiek ez betetzeak dakartzan edozein erantzukizunetatik erabat libre geldituko da udalbatza.

h) Kontratista izango da erantzulea jardueraren ondorioz pertsonei edo gauzei -nahiz Udalaren jabetzako gauzak izan-

f) El contratista se obliga a mantener en buen estado de funcionamiento, limpieza e higiene y conservación la construcción, instalaciones y el equipamiento que constituyen el objeto del presente contrato, siendo a su cargo las reparaciones y trabajos de entretenimiento necesarios cualquiera que sea su importe o causa.

Si la causa de la avería fuera distinta o ajena al normal funcionamiento del servicio, la reparación será a cuenta del Ayuntamiento.

Además, le corresponderá la limpieza diaria de los aseos existentes en la planta baja del edificio salvo los días de descanso y vacaciones en que dicha labor será practicada directamente por los servicios municipales.

Deberá poner sobre aviso al Ayuntamiento en caso de averías o necesidad de reparaciones, en el mismo momento de que tenga su conocimiento. Para ello, deberá ponerse en contacto con los servicios técnicos municipales, a través del número de teléfono que se facilitará al adjudicatario, o en última instancia, dando el aviso a la policía municipal.

g) Cumplir cuantas disposiciones se hallen vigentes en materia de Legislación Laboral, Seguridad Social, Convenios Colectivos, y todo lo comprendido en la Ley 31/1995, de Prevención de Riesgos Laborales y en los Reales Decretos que la desarrollan (especialmente en lo relativo a acciones formativas para el personal y dotación de equipos de protección individual), así como en materia tributaria, quedando la Corporación Municipal totalmente liberada de cualquiera responsabilidad que pudiera derivarse del incumplimiento de aquéllas.

h) El adjudicatario será responsable de cualquier accidente o daño que pueda ocasionarse a personas o cosas, incluso

istripurik edo kalterik gertatuz gero, kaltea Udalari egotz dakiokeenean izan ezik. Horretarako, esleipena egiten den egunetik 15 eguneko epearen barruan, erantzukizun zibileko poliza bat sinatu beharko du hirugarrenei sortutako kalteei aurre egiteko, esleipenak dirauen bitarterako. Poliza ez da inoiz izango 600.000,00 euro baino txikiagoa.

de dependencia o propiedad municipal, como consecuencia de la actividad, excepto cuando el daño sea producido por causas imputables al Ayuntamiento. A tales efectos, y dentro del plazo de quince días, a contar desde la fecha de la adjudicación, deberá suscribir para el tiempo de la adjudicación una póliza de responsabilidad civil frente a terceros. La póliza se contratará por importe no inferior a 600.000,00 euros.

i) Esleipenaren xedea den zerbitzua Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan emango dela bermatuko da. Kontratuaren oinarrizko betebehartzat hartuko da puntu hau. Horrenbestez, jendaurrean egongo den pertsonalak bezeroekin euskaraz eta gaztelaniaz aritzeko gaitasuna izan beharko du. Baldintza hau ezinbestez bete beharrekoa izango da.

Era berean, euskararen erabilera bermatu beharko da herritarrei zuzendutako inprimaki, menu, ohar edo jakinarazpenetan, udalerrian indarrean dagoen euskararen erabilera normalizatzeko ordenantzan jasotzen denaren arabera. Horretarako, Udaleko euskara zerbitzuaren laguntza eta aholkularitza jaso ahal izango du.

Udalarekin izan beharreko harremanetan ere, euskararen erabilera bermatuko du kontratistak.

i) Garantizar la prestación objeto de adjudicación en las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca, lo que se considera como obligación contractual esencial. Por tanto, el personal que esté atendiendo al público, tendrá que estar capacitado para atender a los clientes en euskera y castellano. Esta condición será de obligado cumplimiento.

Del mismo modo, deberá garantizar el uso del euskera en los impresos, menús, avisos y comunicaciones dirigidos a la ciudadanía, de acuerdo a lo recogido en la ordenanza para el uso y normalización del euskera vigente en el municipio. Para ello podrá contar con la ayuda del servicio de euskera del Ayuntamiento.

Del mismo modo, el contratista garantizará el uso del euskera en cualquier tipo de comunicación con el Ayuntamiento.

j) Esleipendunaren ardura izango da indarrean dagoen legedia betetzea, eta bereziki, udalerrian indarrean dauden ordenantza guztiak betetzea. Esanguratsuen artean, honako hauek:

- Tolosaldeako Mankomunitatea osatzen duten udalen eremuan etxe eta merkataritza hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua arautzen duen ordenantza.
- Bide publikoan terrazak eta mahaitxoak ipintzeko udal ordenantza arautzailea.

j) Será obligación del adjudicatario el cumplimiento de la legislación vigente, y en especial, el cumplimiento de las ordenanzas vigentes en el municipio. Entre las principales:

- Ordenanza general reguladora del servicio de recogida y tratamiento de residuos domésticos y comerciales en el ámbito de los municipios que integran la Mancomunidad de Tolosaldea.
- Ordenanza municipal reguladora de la instalación en la vía pública de terrazas y veladores.

➢ Zizurkilgo Udalean eta udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko arauak ematen dituen udal ordenantza.

k) Esleipendunak kontratu honen xede nagusitik aparte aretoren bat erabili behar duenean, Udalaren baimena lortu beharko du, aurretiaz nahiko denborarekin eginda eskaera.
Gainera, Udalak lokalen kudeaketarako erabiltzen duen aplikazio informatikoa erabiltzera derrigortu dezake esleipenduna, hala erabakiko balu. Kasu horretan, beharrezko laguntza emango lioke.

2. Agiri honetan jasotakoaz eta aplikagarri diren araudi osagarriez gain, honako hauek dira bereziki kontratistaren eskubideak:

a) Zerbitzuaren funtzionamendu zuzena ematearren, utzitako ondasunak behar bezala erabiltzea.
b) Zizurkilgo Udalari bere agintaritza erabili dezala eskatzea, behar denean, zerbitzua normal betetzeko edozein arazo badago.

c) Zerbitzua emateagatik dagokion ordainsaria jasotzea, dagozkion prezioen bidez. Prezioen zerrendak jendeak ikusteko moduan jarrita eduki beharko ditu.
d) Dagokion kalte-ordaina jasotzea, Udalak herri onurako arrazoiak direla-eta esleipena berreskuratuko balu.

e) Kontratu administratiboen esleipendunei berezkoak zaizkien gainontzeko eskubideak, agiri honetan espresuki zehaztuta egon ez arren.

## 10. ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA GAUZATZEAN BESTE BATZUEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK

1. Kontratista izango da kontratua gauzatzeak eskatzen dituen eragiketen ondorioz edo bere beharrak bete ez izanaren ondorioz sor litezkeen kalte-galeren erantzule, SPKLTBaren 214. artikuluak xedatzen duenaren arabera.

➢ Ordenanza municipal para la normalización del uso del euskara en el municipio de Zizurkil.

k) Cada vez que el adjudicatario desee utilizar algún local aparte del ámbito principal objeto del contrato, deberá obtener consentimiento expreso del ayuntamiento, debiendo para ello solicitarlo con suficiente antelación. Además, si así lo decidiera, el Ayuntamiento podrá obligar a la adjudicataria a utilizar la aplicación informática de que dispone para gestión de uso de los locales municipales, dando la asistencia necesaria en tal caso.

2. Además de las contenidas en este Pliego y de las que resulten de la aplicación de las normas supletorias, son derechos del contratista las siguientes :

a) Utilizar los bienes cedidos en la forma precisa para el correcto funcionamiento del servicio.
b) A solicitar al Ayuntamiento de Zizurkil que haga valer su autoridad, cuando fuese necesario, a fin de impedir o hacer cesar cualquier perturbación del normal desempeño del servicio.
c) Percibir la retribución correspondiente por la prestación del servicio a través de las correspondientes tarifas. Las listas de precios deberán colocarse en lugar visible para el público.
d) Obtener la correspondiente indemnización en caso de rescate de la adjudicación por razones de interés público.
e) Los demás derechos inherentes a su carácter de adjudicatario de un contrato administrativo aunque no estén expresamente determinados en este Pliego.

## 10. RESPONSABILIDAD DEL CONTRATISTA POR LOS DAÑOS CAUSADOS A TERCEROS DURANTE LA EJECUCIÓN DEL CONTRATO

1. El contratista será responsable de los daños y perjuicios que se causen como consecuencia de las operaciones que requiera la ejecución del contrato, así como los producidos por incumplimiento de sus obligaciones en los términos de lo dispuesto en el artículo 214

del TRLCSP.

2. Horretarako, jakinarazten zaionetik 10 laneguneko epean, aseguru polizaren kopia bat ekarriko du, 600.000,00 euroko gutxieneko berme-mugarekin, eta hori ordainduta dagoela ziurtatzen duen agiria, kontratuaren berezko arriskuak ordainduko dituena, eta bereziki hirugarrenei sortutako kalteengatik eta esleipendunaren langileen, enplegatuen eta menpekoen (iraunkorrak nahiz noizbehinkakoak) ekintzetatik, erabilitako tresneria eta ekipotik nahiz esleipenaren xedeko zerbitzua ematerakoan burututako lanetatik eratorritako erantzukizun zibila (orokorra, patronalekoa eta gurutzatua).

2. A tal fin aportará, en el plazo de 10 días hábiles desde la notificación, copia de una póliza de seguros, con límite mínimo de garantía de 600.000,00 euros, y justificante del pago de la misma, que cubra los riesgos inherentes al contrato y en especial a la responsabilidad civil (general, patronal y cruzada) en que pueda incurrir por los daños causados a terceras personas y derivados de actos del personal del contratista, de sus empleados y dependientes permanentes u ocasionales, de la maquinaria y equipo que emplee, así como, a consecuencia de los trabajos realizados durante la ejecución del servicio objeto de la adjudicación.

## 11. KONTRATUA ALDATZEA

1. Herri onurako arrazoiak direla-eta, Udalak kontratua aldatu ahal izango du, behar berriak edo ustekabeko arrazoiak sortzen direnean, eta kontratistak ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubidea izango. Era berean, zerbitzua bide onetik joan dadin, egoki irizten dituen aldaketak sartu ahal izango ditu Udalak.

2. Aldaketa horiek kontratuaren finantza-erregimenari eragiten diotenean, Udalak konpentsazioa eman beharko dio kontratistari, kontratua esleitzerakoan oinarrizkotzat joak ziren baldintza ekonomikoen orekari eusteko.

3. Udalak zerbitzuaren garapenari buruz ematen dituen erabakiek ez balute eraginik izango ekonomia arloan, kontratistak ez du horiengatik inolako kalte-ordainetarako eskubiderik izango.

## 11. MODIFICACIONES DEL CONTRATO

1. El Ayuntamiento podrá modificar el contrato, por razones de interés público, debido a necesidades nuevas o causas imprevistas, no teniendo derecho el contratista a indemnización alguna. Asimismo, el Ayuntamiento podrá introducir en el contrato cuantas modificaciones estime oportunas para la buena marcha del servicio.

2. Cuando las modificaciones afecten al régimen financiero del contrato, el Ayuntamiento deberá compensar al contratista de manera que se mantenga el equilibrio de los supuestos económicos que fueron considerados como básicos en la adjudicación del contrato.

3. En el caso de que los acuerdos que dicte el Ayuntamiento respecto al desarrollo del servicio carezcan de trascendencia económica, el contratista no tendrá derecho a indemnización por razón de los mismos.

## 12. ZERBITZUAK HARTZEA ETA BERME-EPEA

1. Bi hilabeteko berme-epea jarriko da, kontratu administratiboa amaitu ondoren.

2. Epe hori amaitzen denean, esleipena jaso duenari Udal honetan aurkeztu zuen behin betiko bermea itzuliko zaio, non eta esleipendunak ez badio Udal honi edo eragina jasandako hirugarrenei kalte-

## 12. RECEPCIÓN Y PLAZO DE GARANTÍA

1. Se establece un plazo de garantía de dos meses, una vez finalizado el contrato administrativo.

2. Transcurrido este plazo, el Ayuntamiento devolverá al adjudicatario la garantía definitiva ingresada en este Ayuntamiento, salvo que el adjudicatario deba indemnizar al Ayuntamiento o terceros afectados de los

galerarik ordaindu behar kontratua betetzeak eskatzen dituen eragiketen ondorioz sortutako kalte edo galerengatik.

3. Kontratazio-organoak erabakiko du kontratistak emandako prestazioa hura burutzeko eta betetzeko finkatutako preskripzioei lotzen zaion. Horretarako, SPKLTBak xedatzen dituen eskumenak bere esku izango ditu.

## 13. EPEAK BETETZEA

1. Kontratista behartuta dago jarritako bukaerako epea nahiz zatikako epeak betetzera.

2. Berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratista zatikako epeetan berandutzen bada, eta honek finkatutako epe osoa betetzea eragozten badu, edo hala gertatuko dela pentsatzeko arrazoiak badaude, hauetako bat aukeratu ahal izango du Administrazioak: batetik, kontratua bertan behera uztea –kasu honetan kontratistak fidantza galduko luke-, edo, bestetik, SPKLTBaren 212. artikuluak xedatzen dituen zigorrak ezartzea.

3. Lanak geldiarazi, eten eta bertan behera utziz gero, hitzartutako epean ez egitearekin parekatuko da.

4. Kontratista berandutu dela jo ahal izateko, ez da beharko Udalaren aldez aurreko interpelazio edo ohartarazpena.

5. Zigorrak ordaintzeak ez du esan nahi udalbatzak kalte-ordainik ez duenik jaso ahal izango, kontratistari egotz dakizkiokeen atzerapenengatik sortutako kalte-galerengatik.

6. Atzerapen orokorra kontratistari egotz ezin dakizkiokeen arrazoien ondorioz gertatzen bada, SPKLTBaren 213.2 artikuluak xedatutakoari jarraituko zaio.

## 14 ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

1. Arau-hausteak. Esleipendunak egiten dituen arau-hausteak oso larriak, larriak edo arinak izango dira.

1.1. Kontratistaren arau-haustea oso larria

daños y perjuicios que se causen como consecuencia de las operaciones que requiera la ejecución del contrato.

3. El órgano de contratación determinará si la prestación realizada por el contratista se ajusta a las prescripciones establecidas para su ejecución y cumplimiento, disponiendo para tal fin de las prerrogativas establecidas en el TRLCSP.

## 13. CUMPLIMIENTO DE LOS PLAZOS

1. El contratista está obligado al cumplimiento tanto del plazo final como de los plazos parciales que se hubieran fijado.

2. Si el contratista, por causas imputables al mismo, hubiera incurrido en demora respecto a los plazos parciales, de manera que haga presumir razonablemente la imposibilidad de cumplimiento del plazo total fijado o éste hubiera quedado incumplido, la Administración podrá optar indistintamente por la resolución del contrato con pérdida de la fianza o por la imposición de las penalidades que se establecen en el artículo 212 del TRLCSP.

3. La suspensión, interrupción y abandono de la prestación del servicio se equiparará a la falta de realización dentro del plazo convenido.

4. La constitución en demora del contratista no requiere interpelación o intimación previa por parte de la Administración.

5. La aplicación del pago de las penalidades no excluye la indemnización a que la Corporación pueda tener derecho por daños y perjuicios ocasionados con motivo de retrasos imputables al contratista.

6. Si el retraso general fuera producido por motivos no imputables al contratista se estará a lo dispuesto en el art. 213.2 del TRLCSP.

## 14 INFRACCIONES Y SANCIONES

1. Infracciones. Las infracciones que cometa el adjudicatario podrán ser clasificadas como muy graves, graves y leves:

1.1. Incurrirá el contratista en falta muy

izango da, oinarrizko betebeharrak betetzen ez baditu, eta arau-haustea larritzat edo arintzat ezin bada jo. Jardueraren ondorioz dituen betebehar eta erantzukizunak ez betetzean gertatuko da. Horrela, arau-hauste oso larritzat joko dira honako hauek:

a) Edaritegi-jatetxearen zerbitzua etetea nahitaez irekita egon beharreko denboran edo zerbitzua jarraian ez ematea. Zerbitzua jarraian ez dela ematen ulertuko da jarduera jarraian 5 eguneko epean baino luzeagoan ematen ez bada, Administrazioaren iritziz justifikatu gabeko arrazoiagatik, edo urte naturalaren barruan 10 egunez ematen ez bada.
b) Zerbitzua akats nabarmenekin edo irregulartasunez ematea, ezarritako baldintzak bete gabe eta sistematikoki atzeratuta ibiltzea, hala nola erabiltzaileen hizkuntza eskubideak ez bermatzea.
c) Esleipendunaren kontura eta haren menpe dauden jarduerara atxikitako langileekin dituen lan arloko, segurtasun eta higieneko eta Gizarte Segurantzako eginbeharrak ez betetzea.
d) Zerbitzua baimendu gabeko langileek ematea.
e) Kontratu osoa nahiz haren zati bat lagatzea, azpierrentan ematea edo eskualdatzea, Udalak espresuki horrela baimendu gabe.
f) Urtebeteko epean bi arau-hauste larri egitea.
g) Baimenik gabeko zerbitzuak ematea edo jarduerak egitea.
h) Aldez aurretik bideratutako izaera larriko arau-hausteen zigorrak ez ordaintzea.

1.2. Arau-hauste larritzat hartuko dira esleipendunak egindako urraketak, emakidaren edo agiri honen funtsezko baldintzak aldatzen badituzte. Horrela, arau-hauste larritzat hartuko dira honako hauek:

a) Baimendutako ordutegia behin eta

grave en el caso de incumplimiento de sus obligaciones esenciales, que no puedan ser consideradas leves o graves, por implicar una dejación en las obligaciones y responsabilidades derivadas de la actividad. A título enunciativo, se considerarán infracciones muy graves :

a) El cese o prestación no continuada del servicio de bar-restaurante en el tiempo obligatorio. Se entenderá prestación no continuada la suspensión de la prestación de la actividad por plazo superior a 5 días consecutivos sin causa justificada a juicio de la Administración municipal o durante 10 días computados en año natural.
b) Prestación manifiestamente defectuosa o irregular del Servicio, no cumpliendo las condiciones establecidas y retraso sistemático del mismo, así como el no garantizar los derechos lingüísticos de los usuarios.
c) Incumplimiento de las obligaciones laborales, Seguridad e Higiene y de Seguridad Social con el personal afecto a la actividad, bajo cuenta y dependencia del adjudicatario.
d) La prestación del servicio por personal no autorizado.
e) La cesión, subarriendo o traspaso total o parcial del contrato sin autorización expresa del Ayuntamiento.
f) Comisión de dos faltas graves en el plazo de un año.
g) Prestar servicios o realizar actividades distintas a las autorizadas.
h) La falta de pago de las sanciones por faltas de carácter grave previamente tramitadas.

1.2. Se considerarán faltas graves las infracciones cometidas por el contratista, que supongan alteración de las condiciones esenciales de la concesión o de este Pliego. A título enunciativo se determinan las siguientes:

a) El incumplimiento del horario

berriro eta sistematikoki ez betetzea.

b) Emandako ondasunen erabilera anormala.
c) Baldintzen agiri honetan esleipendunari ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik oso larri kalifikazioa merezi ez duten eta bere izaeragatik arintzat hartu ezin diren guztiak.

d) Urtebeteko epean bi arau-hauste arin egitea.
e) Jokaera maltzurren edo eskatutako lanak urritasunez egitearen ondorioz erabiltzaileei arrisku egoerak sortzen dizkietenak. Adibidez, premiazko konponketei edo berritzeei dagokienez atzemandako hutsegiteak.
f) Finkatutako garaian eskainitako kanona ez ordaintzea, edo aldez aurretik bideratutako izaera arineko arau-hausteen zigorrak ez ordaintzea.
g) Zerbitzuaren aldaketari edo hobekuntzei buruz Udalak ematen dituen aginduak ez betetzea, betiere kontratistari gastu handiagoak egitea ez badakarkio.

1.3. Arintzat hartuko dira honako arau-hauste hauek:

a) Edaritegi-jatetxearen jardueraren ordutegia edo egutegia noizbehinka ez betetzea.
b) Tratu desegokia bezeroekin, larri kalifikazioa merezi ez duenean.

c) Kontratatutako langileek jardueraren erabiltzaileekin eta, oro har, herritarrekin sortutako gorabeherak, tratua desegokia izan delako edota lana egiterakoan gabeziak izan direlako.
d) Jarrera maltzurren nahiz prestazioak edo kontratuak eskatutakoak urritasunez egitearen ondorioz instalazioetan negatiboki eragiten dutenak edo erabiltzaileei kalteak sortzen dizkietenak.

e) Udalak eman dituen adierazpen teknikoak ez betetzea, mantentze-lan

autorizado de manera reiterada y sistemática.
b) El uso anormal de los bienes concedidos.
c) Todas aquellas que implicando el incumplimiento de las obligaciones establecidas para el adjudicatario en el presente Pliego de Cláusulas, no merezcan la calificación de muy graves, y que por su naturaleza no deban ser comprendidas como leves.
d) La comisión de dos faltas leves en el plazo de un año.
e) Las que, como consecuencia de actuaciones maliciosas o realización deficiente de los trabajos exigidos, produzcan situaciones de peligro a los usuarios. Así, las faltas observadas en todo aquello que se refiere a las reparaciones o reposiciones de carácter urgente.
f) La falta de pago del canon ofertado en el tiempo establecido, o de las sanciones por faltas de carácter leve, previamente tramitadas.
g) Incumplimiento de las órdenes municipales sobre modificaciones o mejoras del Servicio que no impliquen mayores gastos para el contratista.

1.3. Tendrán la consideración de leves:

a) El incumplimiento no reiterado del horario o del calendario de funcionamiento del bar-restaurante.
b) El trato incorrecto con el público, cuando no merezca la consideración de grave.
c) Los incidentes del personal contratado con los destinatarios de la actividad y el ciudadano en general, tanto por trato incorrecto, como por deficiencia en la prestación del trabajo.
d) Aquéllas que, como consecuencia de actuaciones maliciosas, realización deficiente de las prestaciones y exigencias contractuales, puedan influir negativamente en las instalaciones, o causen molestias a los usuarios.
e) El incumplimiento de indicaciones de carácter técnico efectuadas por el

egokiari edo ohiko konponketei edo birjarpenei dagokienean.

f) Aurretik aurreikusi ez diren gainontzeko guztiak, nolabait agirian finkatutako baldintzei kalte egiten badiete, baina kalte larririk sortzen ez badute taberna-jangela jarduera ematerakoan; arriskurik sortzen ez badute pertsonengan, animaliengan edo gauzetan; eta kalterik sortzen ez badiete erabiltzaileei.

2. Zigorrak

a) Arau-hauste arinak ohartarazpen batekin zigortuko dira beti. Hala ere 150,00 euro bitarteko isunak ipini ahal izango dira.

b) Arau-hauste larriak 151,00 eurotik 600,00 euro bitarteko isunekin zigortuko dira.

c) Arau-hauste oso larriak 601,00 eurotik 1.500,00 euro bitarteko isunekin zigortuko dira.

3. Hala ere, arau-hauste oso larrien kasuetan, Udalak klausula honetan aurreikusitako zigorrak jartzea edo kontratua amaitzeko dagokion espedientea bideratzea aukeratu ahal izango du.

4. Zigorrak ezartzeak ez du esan nahi kalte-ordainen konpentsaziorik eskatu ahal izango ez denik.

5. Kalteak erreklamatzeaz eta administrazio bidetik diru-zigorrak ezartzeaz gain, kontratista erantzule zibila izango da hirugarrenen aurrean. Horrela, kontratista ordain ematera behartuta egongo da, doluz edo bere erruz, zerbitzua gaizki emateagatik hirugarrenei eragiten dizkien kalte guztiengatik, bai ondasunetan bai instalazioetan egindako kalteengatik ere.

## 15. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

1. SPKLTBaren 223. eta 308. artikuluetan zehaztuta daude kontratua amaitzeko arrazoiak.

Ayuntamiento relativas a un mantenimiento adecuado, o en las reparaciones o reposiciones consideradas como rutinarias.

f) Todas las demás no previstas anteriormente y que, de algún modo, signifiquen detrimento de las condiciones establecidas en el Pliego, con perjuicio no grave en la prestación de la actividad de bar-comedor y que no comporten peligro para personas, animales o cosas, ni causen molestias a los usuarios.

2. Sanciones:

a) Las faltas leves se sancionarán en todo caso con apercibimiento, pudiendo imponerse multas de hasta 150,00 euros.

b) Las faltas graves serán sancionadas con multas de 151,00 a 600,00 euros.

c) Las faltas muy graves se sancionarán desde 601,00 euros hasta 1.500,00 euros.

3. No obstante, en caso de infracciones muy graves el Ayuntamiento podrá optar entre la imposición de sanciones, según lo previsto en esta cláusula, o el inicio del correspondiente expediente para la resolución del contrato.

4. La imposición de sanciones no excluirá la compensación, en su caso, de daños y perjuicios.

5. La reclamación de daños e imposición de penalidades en vía administrativa no excluye la responsabilidad civil del contratista frente a terceros, quedando obligado al resarcimiento de todos los daños que se causan a terceros con motivo de la defectuosa prestación del servicio, por dolo o por culpa, ya sean en bienes y/o instalaciones.

## 15. CAUSAS DE RESOLUCIÓN DEL CONTRATO

1. Constituyen causas de resolución del contrato las establecidas en los artículos 223 y 308 del TRLCSP.

2. Kontratua amaitzearen eraginei dagokienez, SPKLTBaren 225. artikuluak arautzen duena hartuko da kontuan.

3. Bereziki kontratua amaitzeko arrazoia izango da izaera oso larriko arau-hausteak egitea, aurreko klausulan xedatutakoari jarraiki, bai eta esleipendunak ezintasun teknikoa izatea ere kontratuaren xedeko prestazioak betetzeko.

## 16. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Honako hauek dira esleipena egiteko erabiliko diren irizpideak, garrantzia handienekotik txikienekora zerrendatuta eta eskainiko zaien pisuaren arabera:

1.- Automatikoki antzematen diren irizpideak

A) Eskaintza ekonomikoa (eskainitako kanonaren hobekuntza), 25 puntura arte.

B) Instalazioak egokitzen egingo den inbertsioa (gutxieneko inbertsiotik gorako hobekuntzak), 45 puntura arte.

Inbertsioan proposatutako hobekuntzak kontzeptuka zehaztu beharko dira, eta ekonomikoki banakatuta. Hala dagokionean, inbertsioa gauzatzeko denbora-programa ere erantsi beharko da.

A) eta B) kasuetan, balorazioa egiteko garaian, gehieneko puntuazioa emango zaio eskaintzarik onena aurkezten duen proposamenari, eta 0 puntu kanonaren pareko eskaintza edo gutxieneko lizitazio-inbertsioa aurkezten dunari. Gainerako eskaintzak interpolatu egingo dira.

"B" kartazalean sartuko da proposamen ekonomikoari buruzko dokumentazioa.

2.- Balio-judizio baten arabera baloratu behar diren irizpideak.

Lan-esperientzia eta ustiapen-proiektua, 30 puntura arte.

Eskaintza aurkezten duenak jarduera horretan daukan lan-esperientzia baloratuko da, bai eta ezarriko dituen ostalaritza-zerbitzuen proiektu orokorra ere. Horretarako, memoria bat aurkeztu beharko du, bi alderdi horien berri emateko.
Taberna-jatetxearen ustiaketari buruzko ideiak eta

2. En cuanto a los efectos de la resolución se estará a lo regulado en el artículo 225 del TRLCSP.

3. De manera específica constituirán causa de resolución del contrato la comisión de infracciones de carácter muy grave, según lo dispuesto en la cláusula anterior, así como la imposibilidad técnica de la adjudicataria para cumplir las prestaciones objeto del contrato.

## 16. CRITERIOS DE ADJUDICACIÓN

Los criterios que han de servir de base para la adjudicación, relacionados por la ponderación que se les atribuye, son los siguientes:

1.- Criterios de apreciación automática.

A) Oferta económica (mejora en el canon ofertado), hasta 25 puntos.

B) Inversión en adecuación instalaciones (mejoras sobre la inversión mínima), hasta 45 puntos.

Las mejoras en inversión propuestas deberán venir detalladas por conceptos y desglosadas económicamente, incluyendo, en su caso, el programa temporal para su ejecución.

En ambos casos, A) y B), la valoración se calculará asignando la máxima puntuación a la propuesta que presente la mejor oferta y 0 puntos a la propuesta que iguale el canon o inversión mínima de licitación, interpolando el resto.

Se incluirá en el sobre "B" la documentación relativa a la proposición económica.

2.- Criterios cuya ponderación depende de un juicio de valor.

Experiencia profesional y proyecto de explotación, hasta 30 puntos.

Se valorará la experiencia profesional del ofertante en relación con la actividad y el proyecto global de los servicios de hostelería a implantar, a cuyo efecto se deberá presentar una memoria que incluya ambas circunstancias.
Ideas en torno a la explotación del bar-restaurante

hobekuntza-proposamenak.

"A" kartazalean sartuko du lan-esperientziari eta jarduera-proiektuari buruzko dokumentazioa.

y propuestas de mejora.

Se incluirá en el sobre "A" la documentación relativa a la experiencia profesional y el proyecto de actividad.

## 17. KONTRATATZEKO GAITASUNA

1. Zuzenbidezko eta jarduteko gaitasuna daukaten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide honetan, baldin eta ez badira sartzen adierazitako SPKLTBaren 60. artikuluan zehaztutako debekuetan.

2. Pertsona horiek nahikoa kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala egiaztatu beharko dute. Kaudimena 18.7 klausulan xedatzen diren baliabideen bidez egiaztatu beharko da

3. Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariek kontratatuz gero, emandako askietsitako ahalordea erabili beharko dute.

4. Pertsona juridiko baten ordez bertako kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena daukala egiaztatu beharko du, dagozkion egiaztagirien bitartez. Kasu batean nahiz bestean, ordezkariari kontratatzeko zehaztutako debekuak ordezkariarengan ere eragiten dute.

5. Enkanteko lehiatzaileek, gainera, hitzarmen honen helburuarekin harreman zuzena duten jarduerak egiteko helburua izan beharko dute, eta hura behar bezala burutzeko adinako giza eta material-baliabideez hornitutako antolamendua ere.

## 17. CAPACIDAD PARA CONTRATAR

1. Podrán tomar parte en este procedimiento de contratación las personas naturales o jurídicas que se hallen en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar y no estén incursas en ninguna de las prohibiciones para contratar establecidas en el artículo 60 del TRLCSP.

2. Dichas personas deberán acreditar suficiente solvencia económica, financiera y técnica o profesional. La solvencia se deberá acreditar de acuerdo con los medios estipulados en la cláusula 18.7.

3. Asimismo, podrán hacerlo por sí o representadas por persona autorizada, mediante poder bastante otorgado al efecto. En caso de que lo contraten los representantes, deberán utilizar el poder bastanteado otorgado

4. Cuando en representación de una persona jurídica concurra algún miembro de la misma, deberá justificar documentalmente que está facultado para ello. Tanto en uno como en otro caso, al representante le afectan las causas de incapacidad para contratar citadas.

5. Además los licitadores deberán tener como finalidad realizar actividades que tengan relación directa con el objeto del presente contrato y disponer de una organización dotada de elementos personales y materiales suficientes para la debida ejecución del mismo.

## 18. PROPOSAMENAK, AGIRIAK ETA AURKEZTEKO EPEA

1 Kontratazio honen espedientea, baita horrekin batera doazen agiri teknikoak ere, udaletxeko bulego orokorretan ikusi ahal izango dira, 8:00etatik 14:00etara, lanegun guztietan, larunbatetan izan ezik, lizitazio honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik

## 18. PROPOSICIONES, DOCUMENTACIÓN Y PLAZO DE PRESENTACIÓN

1. El expediente de esta contratación, así como la documentación técnica unida al mismo, podrá ser examinado en las oficinas generales de este Ayuntamiento, de 8 a 14 horas, todos los días hábiles, salvo los sábados, a partir del siguiente a aquel en que aparezca publicado el anuncio de esta

aurrera, proposamenak aurkezteko epea bukatu arte.

licitación en el B.O.G. y hasta el vencimiento del plazo de presentación de proposiciones.

2 Proposamenak, arestian adierazitako leku eta ordutegian aurkeztuko dira egutegiko HOGEITA SEI (26) egun naturaleko epean, aipatu lizitazio-iragarki hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Proposamenak aurkezteko azken eguna larunbata edo egun baliogabea bada, epea hurrengo lanegunera arte luzatuko da.

2 Las proposiciones se presentarán en el lugar y horario arriba indicados durante el plazo de VEINTISEIS (26) días naturales, contados a partir del siguiente a aquél en el que se publique en el B.O.G. el referido anuncio de licitación. Si el último día de presentación de ofertas fuera sábado o inhábil, se prorrogará hasta el día hábil siguiente.

3. Gainera, eskaintza hau kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da, eta honako atari informatiko edo webgunean ere eskuratu ahal izango da: www.zizurkil.eus. Gune berean, baldintza-agiriak ere eskuratu ahal izango dira.

3. Esta licitación se anunciará, asimismo, en el perfil del contratante del órgano de contratación, cuyo acceso se podrá realizar a través del siguiente portal informático o página web: www.zizurkil.eus. En este mismo lugar se podrá tener acceso a los pliegos.

4 Ez dira onartuko epe horretatik kanpo aurkeztutako proposamenak, nahiz postetxean epea amaitu aurretik utzi zirela egiaztatu. Dena dela, proposamena onartu egingo da baldin eta epe barruan bidali zela egiaztatzen bada. Horretarako, lizitatzaileak, proposamena bidaltzen duen egunean bertan, posta-egiaztagiria bidali behako dio kontratazio-organoari telekopiaz, faxez, telegramaz edo posta elektronikoz. Iragarkia posta elektronikoz bidaltzeari dagokionez, horren balioaz Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuko (aurrerantzean APKLAO) 80.4 artikuluak xedatzen duenari jarraituko zaio. Hala ere, egun horretatik egutegiko 10 egun igarotzen badira proposamena jaso gabe, ez da inola ere onartuko.

4 Las proposiciones presentadas con posterioridad no serán admitidas aunque conste que se entregaron en Correos antes de la finalización del plazo, salvo que se remita al Órgano de Contratación por télex, fax, telegrama o correo electrónico la justificación de la fecha de remisión de la solicitud en el mismo día que se envió por correo. El envío del anuncio por correo electrónico se ajustará a lo establecido en cuanto a su validez en el artículo 80.4 del Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas (en adelante RGLCAP). Transcurridos, no obstante, 10 días naturales siguientes a la indicada fecha sin haberse recibido la proposición, ésta no será admitida en ningún caso.

5 Proposamenak sekretuak izango dira, eta horien aurkezpenak baldintza administratibo berezien klausulak jasotzen dituen agirian aurreikusitako guztiaren edukia enpresaburuak baldintzarik gabe onartzen duela ulertzera darama.

5 Las proposiciones serán secretas y su presentación presume la aceptación incondicionada por el empresario del contenido de la totalidad de lo previsto en pliego de cláusulas administrativas particulares.

6 Euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntzaren batean idatzitako agiri originalei, horietako hizkuntzaren baterako itzulpen ofiziala erantsiko zaie.

6 A la documentación cuyo original esté escrito en idioma distinto del euskara o del castellano, deberá acompañarse traducción oficial a uno de los dos idiomas.

7. Lizitatzaileek hiru kartazal (A, B eta C)

7. Los licitadores deberán presentar tres sobres

aurkeztuko dituzte, itxita. Kartazal bakoitzean hau idatziko da: "ZIZURKILGO “ATXULONDO” KULTUR ETXEAN EDARITEGI-JATETXEAREN USTIAKETA PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO PROZESUAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA”.

cerrados (A, B y C) en cada uno de los cuales figurará la inscripción "PROPOSICIÓN PARA TOMAR PARTE EN LA CONTRATACIÓN POR PROCEDIMIENTO ABIERTO DE LA EXPLOTACIÓN DEL BAR-RESTAURANTE DE LA CASA DE CULTURA “ATXULONDO” DE ZIZURKIL”.

Kartazal bakoitzean, honako hau zehaztuko da: enpresaren izena (jakinarazpenak jasotzeko helbidea ipiniz), proposamena izenpetzen duenaren izen-abizenak, eta noren izenean izenpetzen duen. Kartazalek ere izenpetuta egon beharko dute.

En cada sobre se indicará la denominación de la empresa, con indicación del domicilio a efectos de notificaciones, nombre y apellidos de quien firme la proposición y el carácter con que lo hace, debiendo estar los sobres también firmados.

8. 1. <u>"A" kartazalak</u> dokumentazio administratiboa edukiko du, eta kartazalaren azpititulua honako hau izango da: "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA". Hona hemen “A” kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

A) Enpresa lizitatzailearen edo lizitatzaileen izaera juridikoa ziurtatzen duten agiriak, eta, kasua balitz, bere ordezkaritzarena.

Izaera juridikoa honako modu hauetakoren batean ziurtatuko da:

a) Bere izenean edo ahaldun gisa proposamena aurkezten duen pertsonaren Estatuko Nortasun Agiria. Beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu: askietsi eta legeztatutako ahalordea.

b) Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, eraketa edo aldaketa eskritura, Merkataritzako Erregistroan inskribatua, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, aplikagarri zaion merkataritzako legeriaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du, jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira

8. 1. <u>El sobre "A"</u> incluirá la documentación administrativa y se subtitulará "CAPACIDAD Y SOLVENCIA PARA CONTRATAR" y contendrá los siguientes documentos :

A) Los documentos que acrediten la personalidad jurídica de la empresa o empresas licitadoras y, en su caso, su representación.

La personalidad jurídica se acreditará de alguna de las siguientes formas :

a) Documento nacional de identidad de la persona que presenta la proposición en nombre propio o como apoderado. En el caso de que se actúe en representación de otra persona o entidad, poder bastanteado y legalizado.

b) Cuando la licitadora sea una persona jurídica, escritura de constitución o modificación, en su caso, debidamente inscrita en el Registro Mercantil y número de identificación fiscal, cuando la inscripción fuera exigible conforme a la legislación mercantil que le sea aplicable. Si no lo fuere, la acreditación de la capacidad de obrar se realizará mediante la escritura o documento de constitución, estatutos o acto fundacional, en el que constaren las

lehiatzailearen jarduera zuzentzen duten arauak. Enpresaburuak espainiarrak ez badira, baina bai Europako Erkidegokoak, lanbide- edo merkataritza-erregistroko inskripzioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie. Bestela, zinpeko aitorpen bat edo ziurtagiri bat aurkeztu ahal izango dute, kasu horretan dagozkion erkidegoko xedapenak kontuan hartuta.

c) Proposamena enpresa-batasun batek aurkezten duenean, horretaz gain, enpresa bakoitzeko legezko ordezkariek sinaturiko agiria aurkeztu beharko dute. Bertan adieraziko da eratuko den Aldi Baterako Enpresa Batasunean bakoitzak duen partaidetza, eta kontratuak dirauen bitartean, Administrazioaren aurrean horien guztien erabateko ordezkaritza izango duen pertsona izendatuko da.

B) Lizitatzaileek erantzukizunpeko berariazko aitorpena aurkeztu behar dute, SPKLTBaren 60. artikuluan kontratatzeko ezarritako debekuetatik bat bera ere ez dutela agertzeko.

C) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik dituztela frogatzen duten agiriak, dagozkion erakundeen egiaztagirien bitartez. Egiaztagiri hori eduki ezean, betebehar horiek beteta dituztela adierazten duen zinpeko aitorpena aurkez dezakete.

D) Jakinarazpenak egiteko helbide elektroniko bat.

E) Lizitatzailearen kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta tekniko edo profesionala justifikatzen duten agiriak:

a) <u>Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa</u>. SPKLTBaren 75. eta 78. artikuluek xedatzen duten

normas por las que se regula su actividad, inscritos, en su caso, en el correspondiente Registro oficial. Cuando se trate de empresarios no españoles de Estados miembros de la Unión Europea, deberán acreditar su inscripción en el registro procedente de acuerdo con la legislación del Estado donde estén establecidos o mediante la presentación de una declaración jurada o un certificado, de acuerdo con las disposiciones comunitarias de aplicación.

c) Cuando la proposición se formule por una agrupación de empresas, deberá presentarse, además, documento firmado por los representantes legales de todas ellas en el que se señale la participación de cada una en la Unión Temporal de Empresas a constituir y designarse la persona que durante la vigencia del contrato habrá de ostentar la plena representación de todas ellas frente a la Administración.

B) Declaración expresa responsable de no estar incurso en ninguna de las prohibiciones de contratar enumeradas en el artículo 60 del TRLCSP.

C) Acreditación de hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social, mediante certificaciones emitidas por las correspondientes instituciones, que podrá ser sustituida, si esto no es posible, por una declaración responsable en tal sentido.

D) Una dirección de correo electrónico en que efectuar las notificaciones.

E) Justificantes de la solvencia económica, financiera y técnica o profesional del licitador:

a) <u>Solvencia económica y financiera</u>. Por uno o varios de los medios establecidos en los artículos 75 y

baliabide bat edo gehiago erabiliz.

b) Kaudimen profesionala. Edaritegian eta kafetegian gutxienez urtebeteko (12 hilabeteko) eskarmentua edukitzea. Esperientzia egiaztatzeko modua: Gizarte Segurantzak edo enpresek luzaturiko ziurtagiriak.

c) Kaudimen teknikoa. Sukaldeko lanetan jardungo duten pertsona guztien kaudimen teknikoaren egiaztapena, ostalaritza edota sukaldaritza ikasketen tituluen kopia bidez (gutxienez Lanbide Heziketako 1. maila) edota sukaldaritza esperientzia egiaztatuz, gutxienez urtebetez (12 hilabete). Esperientzia egiaztatzeko modua: Gizarte Segurantzak edo enpresek luzaturiko ziurtagiriak.

d) Hizkuntza-gaitasuna. Jendaurreko langileak zerbitzua euskaraz emateko gai direla adierazten duen ziurtagiri homologatua. Halakorik izan ezean, Zizurkilgo Udaleko Euskara Zerbitzuaren ahozko proba bat gainditu beharko dute.
Berdin jokatuko da langile berriren bat edo ordezkoren bat kontratatzean.

Kontratazioko mahaiari dagokio aurkeztutako dokumentazioak enpresaburuaren kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta kaudimen teknikoa nahikoa justifikatzen duen ala ez erabakitzea.

F) JEZn alta emana dagoela ziurtatzen duen agiria, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, indarrean dagoen ekitaldiari badagokio alta aurkeztuz, edo beste kasuetan JEZko azkeneko ordainagiria aurkeztuz; bi kasuetan, aipatu zergaren matrikulan baja eman ez izana adieraziko duen zinpeko

78 del TRLCSP.

b) Solvencia profesional. Tener una experiencia mínima en el servicio de bar y cafetería de al menos un año (12 meses) que se acreditará mediante certificados de la Seguridad Social o bien mediante certificados de empresas.

c) Solvencia técnica. Acreditación de su solvencia técnica mediante copia del título correspondiente de estudios de hostelería y/o cocina (FP1 mínimo) o acreditando experiencia en cocina de al menos un año (12 meses). La experiencia se acreditará mediante certificados de la Seguridad Social o bien mediante certificados de empresas.

d) Capacidad lingüística. El personal que esté atendiendo al público deberá acreditar tener un nivel suficiente para poder ofrecer el servicio en euskera. Podrá presentar un certificado homologado, o, en caso de no tener ningún certificado, deberá superar una prueba oral realizada por el Departamento de Euskera del Ayuntamiento.
Se actuará del mismo modo al contratar un nuevo empleado o al contratar algún sustituto.

Corresponde a la mesa de contratación determinar si la documentación presentada justifica suficientemente la solvencia económica y financiera y la solvencia técnica del empresario.

F) Acreditación de estar dado de alta el I.A.E., en el epígrafe que corresponda al objeto del contrato, mediante la presentación del alta, si se refiere al ejercicio corriente, o del último recibo del I.A.E., en los demás casos, acompañada en ambos supuestos de una declaración responsable de no

aitorpena aurkeztu beharko da.

G) Atzerriko enpresak badira, aitorpena egin beharko dute Espainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adieraziz, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala egokituz gero, lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo lioketela.

2. "B" kartazalaren azpititulua hau izango da: "DIRU-PROPOSAMENA ETA AUTOMATIKOKI BALIOESTEKO IRIZPIDEAK". Hona hemen "B" kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

Proposamen ekonomikoa, I. eranskinean zehaztutako ereduari egokitua, lizitatzaileak edo hura ordezkatzen duen pertsonak sinatua. Nolanahi ere, eskainitako prezioen barne daude zergak, gastuak eta zergen arloko edozein tasa edo ariel eta onura industriala.

Kopuru honi dagokion BEZa erantsiko zaio.

3. "C" kartazalaren azpititulua hau izango da: "PROPOSAMEN TEKNIKOA". Hona hemen "C" kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

Plangintza eta jarduketa xehatua jasotzen duen memoria, eta gutxienez honako kapitulu hauek bereizi beharko ditu:

a) Lortu nahi dituen helburuen definizioa.
b) Egingo diren ekintzen azalpena, ahal den zehaztuena.
c) Proiektuan parte hartuko duten pertsonen identifikazioa (NANaren kopia) eta Curriculum Vitaeak.
d) Lizitatzaileak proposatutako hobekuntzak, zerbitzuari dagokionez.

Halaber, baldintza-agiri honen 16. baldintzan ezarritako balioesteko irizpideen arabera, proposamena baloratzeko beharrezkoa den

haberse dado de baja en la matrícula del referido impuesto.

G) Para las empresas extranjeras, la declaración de someterse a la jurisdicción de los Juzgados y Tribunales españoles de cualquier orden, para todas las incidencias que de modo directo o indirecto pudieran surgir del contrato, con renuncia, en su caso, al fuero jurisdiccional extranjero que pudiera corresponder al licitante.

2. El sobre "B" se subtitulará "PROPOSICIÓN ECONÓMICA Y CRITERIOS DE VALORACIÓN AUTOMÁTICA" y contendrá los siguientes documentos:

Proposición económica, firmada por el licitador o persona que le represente, ajustada al modelo que se especifica en el Anexo I, incluyéndose en los precios ofertados todos los conceptos, incluidos los impuestos, gastos, tasas y arbitrios de cualquier esfera fiscal y el beneficio industrial.

A esta cantidad se le añadirá el I.V.A. correspondiente.

3. El sobre "C" se subtitulará "PROPUESTA TÉCNICA", y contendrá los siguientes documentos:

Una memoria de planificación y actuación detallada que como mínimo deberá constar de los siguientes capítulos diferenciados:

a) Definición de los objetivos que se compromete a obtener.
b) Descripción de las actividades a realizar lo más detallado posible.
c) Identificación (copia del DNI) y Curriculum Vitae de las personas que van a formar parte del proyecto.
d) Mejoras propuestas por el licitador/a en relación con el servicio.

Asimismo, contendrá la documentación necesaria para valorar la propuesta conforme a los criterios de valoración

dokumentazioa ere edukiko du, proposamen ekonomikoari buruzkoa izan ezik, "B" kartazalean sartuko baita. Sekretua gordetzearren, ez "C" ezta “A” kartazalean ere ez da diru-proposamena ezagutarazteko inolako daturik aurkeztuko.

Lizitatzaile bakoitzak proposamen bakar bat baino ezin izango du aurkeztu. Era berean, bakarrik aurkeztu bada, ezin izango du aldi baterako enpresa-elkarteekin beste proposamenik izenpetu. Oinarri hau ez badu betetzen, berak aurkeztutako proposamen guztiak automatikoki baztertuko dira.

## 19. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio mahaia honako kide hauek osatuko dute:

- Lehendakaria: udalbatzakoa edo hark eskuordetutako kide bat.
- Kideak: lau kide. Horietako bat izango da Udaleko idazkari-kontuhartzailea.
- Idazkaria: Udaleko funtzionario bat.

## 20. AGIRIEN KALIFIKAZIOA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

1. Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean, mahaiak epe eta modu egokian jasotako agiriak ("A" kartazala) sailkatu egingo ditu. Horretarako, APKLAOko 81. artikuluan eta hurrengoetan adierazten den eran jardungo du.

   Aipatu kalifikaziorako, lehendakariak “A” kartazala irekitzeko agindua emango du. Aurkeztutako agirietan mahaiak akats materialak antzematen baditu, ahoz jakinaraziko die interesatuei. Gainera, kontratazioko organoaren iragarkien bitartez agerian jarriko dira, eta gehienez ere hiru egun baliodunekoepea jarriko dio lizitatzaileari akatsa zuzen dezan.

2. APKLAOko 22. artikuluak xedatutako ondorioetarako, enpresaburuak aurkeztutako ziurtapenei eta agiriei buruzko azalpenak, edo beste agiri osagarriak aurkez ditzan eska dezake kontratazio mahaiak. Hala izanez gero, bost egun naturaleko epean egin

fijados en la cláusula 16ª, salvo lo que se refieren a la propuesta económica, que se presentará en el sobre "B". A fin de preservar el secreto, no se presentarán en el sobre "C" ni en el sobre “A” datos que puedan dar a conocer la propuesta económica.

Cada licitador no podrá presentar más que una sola proposición. Tampoco podrá suscribir ninguna propuesta en agrupación temporal con otras, si lo ha hecho individualmente. La contravención de este principio dará lugar automáticamente a la desestimación de todas las por él presentadas.

## 19. MESA DE CONTRATACIÓN

La Mesa de Contratación estará compuesta por:

- Presidente: el de la Corporación o miembro en quien delegue.
- Vocales: cuatro vocales, uno de los cuales será el Secretario-Interventor del Ayuntamiento
- Secretario: un funcionario o funcionaria del Ayuntamiento.

## 20. CALIFICACIÓN DE DOCUMENTOS Y APERTURA DE PROPOSICIONES

1. Vencido el plazo de presentación de proposiciones, la Mesa procederá a la calificación de la documentación recibida en tiempo y forma (sobre “A”), procediendo, para ello, como se señala en los arts. 81 y ss. del RGLCAP.

   A los efectos de la expresada calificación, el presidente ordenará la apertura del sobre “A”. Si la Mesa observare defectos materiales en la documentación presentada lo comunicará verbalmente a los interesados, además se harán públicas a través de anuncios del órgano de contratación y concederá un plazo no superior a tres días hábiles para que el licitador subsane el error.

2. Tal y como dispone el artículo 22 del RGLCAP, la Mesa de Contratación podrán recabar del empresario aclaraciones sobre los certificados y documentos presentados o requerirle para la presentación de otros complementarios, lo que deberá

beharko du. Bestalde, eskaintzak onartutzat hartu ondoren, ezingo da besterik aurkeztu APKLAOko 83.6 artikuluak xedatutakoaren arabera.

3. Behin agiriak sailkaturik, eta akats eta hutsuneak zuzendu eta gero, halakorik badago, agiri honen 18. baldintzan azaltzen diren irizpideak zein enpresak betetzen dituzten zehaztuko du mahaiak, eta berariaz adieraziko du zein enpresa onartu dituen lehiaketarako, zein baztertu dituen eta zergatik baztertu dituen.

4. Balio-judizio baten araberakoak diren irizpideen balorazioari dagokionez, aurkeztutako eskaintzak ("C" kartazala) jendaurreko ekitaldian irekiko dira, proposamenak aurkezteko epea amaitu eta bosgarren lanegunean, eguerdiko 12:00etan. Larunbata bada, hurrengo lanegunean egingo da.

Ekitaldi horren helburu bakarra da bertaratu direnei lizitatzaileek aurkeztu dituzten proposamen teknikoen berri ematea. Ekitaldiaren hasieran, bertaratu direnei "A" kartazalean dagoen dokumentazioaren analisien emaitza jakinaraziko zaie.

5. Ekitaldi horren ondoren, baina diru-proposamenak eta automatikoki balioesteko irizpideak (B kartazala) irekitzeko ekitaldi publikoa egin baino lehenago, mahaiak aurkeztutako proposamenak baloratzeari ekingo dio, esleipen-irizpide teknikoen arabera (irizpideak formulak aplikatzearekin bakarrik kuantifikatzerik ez daudenean). Horretarako, kontratazio mahaiak alderdi horiek baloratzeko beharrezko irizten dituen txosten teknikoak eska ditzake.

6. SPKLTBaren 150. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, eskaintza ekonomikoa (B kartazala) ekitaldi publikoan irekitzeari ekingo zaio, alderdi teknikoen (C kartazala) balorazioaren emaitza ezaguna denean.

cumplimentar en el plazo de cinco días naturales sin que puedan presentarse después de declaradas admitidas las ofertas conforme a lo dispuesto en el artículo 83.6 del RGLCAP.

3. La Mesa, una vez calificada la documentación presentada y subsanados, en su caso, los defectos u omisiones observados, procederá a determinar las empresas que se ajustan a los criterios de selección de las mismas determinados en la cláusula 18 de este pliego, con pronunciamiento expreso sobre los admitidos a la licitación, los rechazados y sobre las causas de su rechazo.

4. Las ofertas presentadas relativas a los criterios de valoración cuya ponderación dependa de un juicio de valor (sobre "C") serán abiertas en acto público el quinto día hábil siguiente al de la finalización del plazo de presentación de proposiciones a las 12'00 horas. Caso de ser sábado, se traslada al primer día hábil siguiente.

El acto únicamente tendrá como fin que los presentes puedan tener conocimiento de las proposiciones técnicas presentadas por los licitadores. Al comienzo del acto se comunicará a los presentes el resultado del análisis de la documentación contenida en el sobre "A".

5. Tras el anterior acto, pero con antelación suficiente a la celebración del acto público para la apertura de las proposiciones económicas y de otros criterios de valoración de aplicación automática (sobre B), la Mesa procederá a la valoración de las proposiciones presentadas en aplicación de los criterios de adjudicación técnicos (criterios que no sean cuantificables mediante la mera aplicación de fórmulas). A tal efecto, la Mesa de contratación podrá solicitar los informes técnicos que considere necesario para la valoración de tales aspectos.

6. A efectos de lo dispuesto en el art. 150 del TRLCSP, la apertura en acto público de la oferta económica (sobre B) se efectuará una vez conocido el resultado de la valoración de los aspectos técnicos (sobre C).

Udaleko kontratatzailearen profilean eta iragarki-oholean ezarritako egunean eta lekuan, mahaiak onartuak izan diren eskaintzen diru- proposamenak (B kartazala) irekitzeari ekingo dio, ondorengo ordenarekin:

- Formulak aplikatzearekin bakarrik kuantifikatu edo baloratu ezin diren esleipen-irizpideei buruzko proposamen edo alderdi teknikoen balorazioaren emaitzaren berri emango da (balio-judizio baten araberakoak diren irizpideak).

- Eta, azkenik, mahaiak onartuak izan diren proposamenen "B" kartazala irekitzeari ekingo dio. Kartazal horrek diru-proposamena eta automatikoki balioesteko beste irizpideen dokumentazioa jasoko ditu.

Kartazalak irekitzeko datak aldatzea erabakitzen bada, lizitatzaileei kontratatzailearen profilaren bidez jakinaraziko zaie.

7. Ondoren, eta, hala badagokio, egoki diren txosten teknikoak egin eta gero, kontratazio mahaiak proposamenak aztertuko ditu, eta esleipena egin behar duen kontratazio organoari pasako dio esleipen-proposamena. Esleipen-proposamenak ez du proposatutako enpresaburuaren alde inolako eskubiderik sortuko, kontratazio organoaren erabakia ez dagoen bitartean.

8. Emandako pauso guztien berri emango da espedientean, derrigorrean idatziko diren aktetan jasoaz.

9. Esleipena irmoa denean, lizitatzaileek ez badute aurkeztutako dokumentazioa jasotzen, Administrazioak dokumentazio hori suntsitu dezake.

## 21. ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA

1. Kontratazio organoak hamar laneguneko epea emango dio eskaintza ekonomikorik abantailatsuena egin duen lizitatzaileari, eskakizuna jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, bere zerga eta Gizarte Segurantza betebeharretan egunean dagoela ziurtatzen

En la fecha y lugar, que se hará público en el perfil del contratante y tablón de anuncios del Ayuntamiento, la Mesa procederá a la apertura del sobre "B" de las proposiciones admitidas que contiene la propuesta económica con la siguiente secuencia:

- Se dará cuenta del resultado de la valoración de las proposiciones o aspectos técnicos sobre los criterios de adjudicación que no son cuantificables o valorables mediante la mera aplicación de fórmulas (criterios que dependen de un juicio de valor).

- Y finalmente, la Mesa procederá a la apertura del sobre "B" de las proposiciones admitidas que contiene la proposición económica y documentos de otros criterios de valoración de aplicación automática.

Cualquier modificación que pudiera acordarse en cuanto a las fechas de apertura, será comunicada a los licitadores, a través del perfil de contratante.

7. Posteriormente y previos los informes técnicos oportunos, en su caso, la Mesa de Contratación evaluará las proposiciones y elevará la propuesta de adjudicación del contrato al Órgano de Contratación que haya de efectuar la adjudicación. La propuesta de adjudicación no crea derecho alguno a favor del empresario propuesto, mientras no exista acuerdo del órgano de contratación.

8. De todo lo actuado se dejará constancia en el expediente, en las correspondientes actas que necesariamente deberán extenderse.

9. Una vez firme la adjudicación, la Administración podrá disponer sobre la destrucción de la documentación aportada por los licitadores cuando éstos no hayan procedido a su retirada.

## 21. ADJUDICACIÓN Y FORMALIZACIÓN

1. El órgano de contratación requerirá al licitador que haya presentado la oferta económicamente más ventajosa para que, dentro del plazo de diez días hábiles, a contar desde el siguiente a aquél en que hubiera recibido el requerimiento, presente la

duen dokumentazioa aurkezteko, edo kontratazio organoari baimena emateko zuzenean horretarako egiaztapena lor dezan. Hamar laneguneko epe bera izango du SPKLTBaren 64.2 artikuluaren arabera kontratua gauzatzeko beharrezkoak dituen baliabideak izendatzeko edo eskuratzeko konpromisoa betetzen duela ziurtatzen duen agiria, 10. klausulan deskribatzen den aseguru polizaren kopia ekartzeko, eta behin betiko bermea ezartzeko. Ziurtagiri horiek baliabide elektroniko, informatiko edo telematikoen bidez luzatu ahal izango dira.

2. Adierazitako epean eskaera ez bada behar bezala betetzen, lizitatzaileak bere eskaintza atzera bota duela ulertuko da. Kasu horretan, eskaintzen sailkapen ordena jarraituz, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari.

3. SPKLTBaren 155.2. artikuluaren arabera, kontratua burutzeari edo jardunbide honi uko egiten bazaio, esleipenak lizitatzaileei eragindako gastuen konpentsazioa ezarriko du Administrazioak, lizitatzaileei entzunaldia egin ostean eta gastuak justifikatu ondoren.

4. Kontratua, esleipendunak esleipenaren jakinarazpena jaso eta beranduenez ere hurrengo hamabost laneguneko epean sinatu beharko da.

5. Esleipendunaren erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, Administrazioak kalte-galerak ordaintzea eska dezake, interesdunari entzun eta gero.

**22. KONTRATUA UZTEA ETA AZPIKONTRATAZIOA.**

Kontratistak berak egin beharko ditu lanak, eta ezin izango dio utzi beste pertsona bati kontratu guztia edo horren zati bat Zizurkilgo Udalak aldez aurretik eta espresuki baimendu gabe, eta SPKLTBaren 226. artikuluak xedatutako baldintzak betez.

documentación justificativa de hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social o autorice al órgano de contratación para obtener de forma directa la acreditación para ello, de disponer efectivamente de los medios que se hubiese comprometido a dedicar o adscribir a la ejecución del contrato conforme al artículo 64.2 del TRLCSP, copia de la póliza de seguros descrita en la cláusula 10ª y de haber constituido la garantía definitiva. Los correspondientes certificados podrán ser expedidos por medios electrónicos, informáticos o telemáticos.

2. De no cumplimentarse adecuadamente el requerimiento en el plazo señalado, se entenderá que el licitador ha retirado su oferta, procediéndose en ese caso a recabar la misma documentación al licitador siguiente, por el orden en que hayan quedado clasificadas las ofertas.

3. Al amparo de lo previsto en el art. 155.2 del TRLCSP, en caso de renuncia a la celebración del contrato o desistimiento de este procedimiento, la compensación de los gastos que la licitación haya ocasionado a los licitadores será fijada por esta Administración previa audiencia y justificación de aquéllos.

4. La formalización del contrato deberá efectuarse no más tarde de los quince días hábiles siguientes a aquél en que el adjudicatario reciba la notificación de la adjudicación.

5. En el caso de falta de formalización del contrato por causas imputables al contratista, la Administración podrá exigir, previa audiencia del interesado, indemnización de daños y perjuicios.

**22. CESIÓN DEL CONTRATO Y SUBCONTRATACIÓN**

El contratista estará obligado a ejecutar los trabajos personalmente, no pudiendo ceder, en todo o en parte, el contrato a otra persona sin la autorización expresa y previa del Ayuntamiento de Zizurkil, y con sujeción a las condiciones establecidas por el artículo 226 del TRLCSP.

## 23. UDALAREN ESKUMENAK

1. Udalari dagokio: kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak konpontzea, herri onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratua amaitzea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, SPKLTBan zehaztutako baldintzak eta ondorioak betez.

2. Horretarako hartzen diren akordioek administrazio-bidea agortuko dute, eta berehala bete beharrekoak izango dira.

3. Era berean, Zizurkilgo Udalari dagokio itundutako zerbitzu-emakidaren kontrola, alta eta jarraipena egitea. Horretarako, Udalak edozein unetan eskatu ahal izango dio kontratistari kontratu hori burutzeari dagozkion txostenak aurkez ditzala.

## 23. PRERROGATIVAS DEL AYUNTAMIENTO

1. Corresponden al Ayuntamiento las prerrogativas de interpretar el contrato, resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, modificarlo por razones de interés público, acordar su resolución y determinar los efectos de ésta, dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos establecidos en el TRLCSP.

2. Los acuerdos dictados al efecto pondrán fin a la vía administrativa y serán inmediatamente ejecutivos.

3. De la misma forma, corresponde al Ayuntamiento de Zizurkil efectuar el control, alta y seguimiento de las prestaciones de los servicios concertados. A tal efecto, el Ayuntamiento podrá en cualquier momento requerir a la empresa adjudicataria la presentación de informes relativos a la ejecución del contrato.

## 24.- PUBLIZITATE-GASTUAK

Esleipendunaren kontura izango dira kontratuaren lizitazio eta esleipen iragarkiaren edo iragarkien gastuak eta zergak, bai eta indarrean dauden xedapenen arabera aplikatu beharreko gainerakoenak ere, horiek adierazitako modu eta zenbatekoan.

## 24.- GASTOS DE PUBLICIDAD.

Serán de cuenta del adjudicatario, los gastos e impuestos del anuncio o anuncios de licitación y adjudicación del contrato, así como cualesquiera otros que resulten de aplicación, según las disposiciones vigentes en la forma y cuantía que éstas señalen.

## 25. DATU PERTSONALEN BABESA

1. Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratatzaileak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen hogeita hamaikagarren xedapen gehigarrian adierazitakoak bete beharko ditu, Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hori garatzen duten arauetan xedatutakoak biltzen baitira bertan.

2. Enpresa esleipendunak kontratua gauzatzeko garaian izaera pertsonaleko datuen tratamendu automatizatua egin behar badu, kontuan hartuko du izaera pertsonaleko datuen babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak eta gaiari buruzko gainontzeko araudiak xedatzen dutena.

## 25. PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL

1. En el caso de que la presente contratación implique el acceso a datos de carácter personal, el contratista deberá cumplir las obligaciones derivadas de la Disposición Adicional Trigésimo Primera de la Ley de Contratos del Sector Público, en relación con la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, y su normativa de desarrollo.

2. La utilización por la empresa adjudicataria de datos de carácter personal objeto de tratamiento automatizado que pueda resultar precisa para el cumplimiento del contrato, se efectuará con observancia de lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de

carácter personal y demás normativa concordante.

## 26. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

1. Baldintza-agiri honen arabera egindako kontratua administrazio-mailakoa izango da, eta, kontratuan bertan zehaztu ez den guztiari dagokionez, Herri Administrazioetako kontratazioari aplikagarri zaizkion arauak jarraituko ditu, bereziki:

   - Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua.

   - Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea eta toki-araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen aurkakoa ez denean.

   - Administrazio Publikoko Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, betiere 30/2007 Legearen aurkakoa ez denean.

   - Osagarri moduan, administrazioko zuzenbideari dagozkion gainerako arauak izango dira indarrean, eta horiek ezean, zuzenbide pribatukoak.

2. Kontratistak kontratuari aplikagarri zaion arautegia ez ezagutzeak ez du salbuetsiko horiek betetzeko duen betebeharretik.

3. Kontratua aplikatzeari eta interpretatzeari, gauzatzeari, aldatzeari edo bertan behera utziz betetzeari buruz sor daitezkeen zalantzak kontratazio organoak erabakiko ditu, eta hark hartutako akordioak eta ebazpenak berehala bete beharrekoak izango dira.

## 26. NATURALEZA Y RÉGIMEN JURÍDICO

1. El contrato que en base a este pliego se realice, tendrá carácter administrativo y en todo lo no previsto en él se estará a lo dispuesto en las normas aplicables a la contratación de las Administraciones Públicas, especialmente en lo dispuesto en:

   - Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, y por el Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público.

   - La Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local y Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones vigentes en materia de Régimen Local, en cuanto no se oponga a lo establecido en la Ley de Contratos del Sector Público.

   - Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, en cuanto no se oponga a lo dispuesto en la Ley 30/2007.

   - Supletoriamente regirán las restantes normas del derecho administrativo y en su defecto las del derecho privado.

2. El desconocimiento por parte del contratista de la normativa aplicable al contrato no eximirá al mismo de las obligaciones de su cumplimiento.

3. Las dudas que pudieran surgir para la aplicación e interpretación del contrato, su ejecución, modificación, cumplimiento por rescisión serán resueltas por el Órgano de Contratación, siendo sus acuerdos y resoluciones inmediatamente ejecutivos.

4. Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta espedientearekin batera doazen agiri teknikoen artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

## 27. JURISDIKZIO AGINPIDEDUNA

Kontratutik sortzen diren auziak administrazioko auzigaietarako jurisdikzioaren menpe geratuko dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bitartez konpondu daitezke, indarrean dagoen legedian zehaztutakoarekin bat etorriz.

**2018ko ilbeltzaren 18an onartutako Agiria, 10/2018 zenbakiko Alkate Dekretu bidez.**

**Idazkaria.**

4. En caso de contradicción entre el presente Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y el resto de la documentación técnica unida al expediente, prevalecerá lo dispuesto en este pliego.

## 27. JURISDICCIÓN COMPETENTE

Las cuestiones litigiosas que se deriven del contrato se entenderán sometidas a la jurisdicción contencioso-administrativa, no obstante lo cual, las partes pueden acordar el sometimiento de sus litigios a arbitraje, conforme a lo establecido en la legislación vigente.

**Pliego aprobado por Decreto de Alcaldía nº 10/2018 de 18 de Enero de 2.018**

**El Secretario.**

ZIZURKILGO UDALA

## I. ERANSKINA

## PROPOSAMEN EKONOMIKOA

**Eskatzailea:**
Izen-abizenak:
NAN:
Helbidea:
Telefonoa:

**Honako honen ordezkaritzan:**
Izen-abizenak:
NAN/IFK:
Helbidea:
Telefonoa:
Kreditatzeko agiria:

gaitasun juridiko eta jarduteko osoaren jabe izanik eta Zizurkilgo **"ATXULONDO" KULTUR ETXEKO TABERNA-JATETXEAREN** ustiapena esleitzeko Zizurkilgo Udalak egin duen deialdiaren jakinaren gainean egonik, honako hau aitortzen dut:

1. Ezagutzen ditudala Zizurkilgo "Atxulondo" Kultur Etxeko taberna-jatetxearen ustiapena esleitzeko kontratazioa arautuko duten baldintza administratibo berezien agiria, baldintza teknikoen agiria eta gainerako dokumentazioa, eta osorik onartzen ditudala.

2.- Ordezkatzen dudan enpresak zerbitzu hori emateko nahikoa gaitasun juridiko eta baliabide dituela, horretarako eskatzen diren baldintza berezi guztiak betetzen dituela, eta indarrean dagoen legediak adierazitako inolako debeku arrazoiren barne ez dagoela.

3.- Lan, zerga eta Gizarte Segurantza arloan legez xedatu edo araututakoa betetzeko betebeharra hartzen duela bere gain.

4.- Esleipena lortuz gero, onartutako baldintzen agirietako betebeharrak eta aurkezturiko eskaintza kontuan hartuta emango duela zerbitzua.

## ANEXO I

## PROPOSICION ECONOMICA

**Solicitante:**
Don/Doña:
D.N.I.:
Domicilio:
Teléfono:

**En representación de:**
Don/Doña:
D.N.I./C.I.F.:
Domicilio:
Teléfono:
Como acredita por:

en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, enterada de la convocatoria del Ayuntamiento de Zizurkil, para adjudicar la explotación del **BAR-RESTAURANTE DE LA CASA DE CULTURA "ATXULONDO"** de Zizurkil, declaro que:

1. Que conozco el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y el Pliego de Cláusulas Técnicas y demás documentación que ha de han de regular la contratación para adjudicar la explotación del Bar-Restaurante de la casa de Cultura "Atxulondo" de Zizurkil, que expresamente asumo y acato en su totalidad.

2.- Que la empresa a la que represento, tiene capacidad jurídica y medios suficientes para prestar dicho servicio, reúne los requisitos específicos exigidos para dicha prestación, y no se halla comprendida en ninguno de los casos de incompatibilidad o prohibición señalados en la legislación vigente.

3.- Que me obligo al cumplimiento de lo legislado o reglamentado en materia laboral, tributaria y de seguridad social.

4.- Que, caso de resultar adjudicatario, prestaré el servicio con sujeción a los requisitos y condiciones de los pliegos aprobados y oferta presentada.

5. Hilero ordaintzeko kanon modura aipatzen dudan kopurua eskaintzen dudala, agiri honetan ezarritako moduan ordainduko dena. Kopuru horri dagokion BEZa erantsiko zaio.

5. Que ofrezco como canon mensual a abonar, la cantidad que indico, pagadera en la forma establecida en el Pliego. A esta cantidad se le aplicará el I.V.A. correspondiente.

| **Kopurua zifraz**<br>**Cantidad en cifras** | | **Kopurua letraz**<br>**Cantidad en letras** |
|---|---|---|
| | | |

(Data eta sinadura)

(Fecha y firma)